Hizpatutako kopuruak ordaindu ondoren, erakunde laguntzaileak ezin eskatu izango du beste diru-kopururik mantentze-lanengatik, aparteko zerbait gertatu ezean. Halakoetan ere, lehenbizi Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailari jakinarazi behar zaio eta apartekotasuna frogatu beharko da, eta gero Aldundiak, onartuz gero, kopuruak ordainduko ditu, aplikatu beharreko arauekin bat etorriz.

Una vez abonadas las cantidades estipuladas, la Entidad Colaboradora no podrá reclamar en concepto de mantenimiento ninguna otra cantidad, salvo que sobrevinieren circunstancias excepcionales que, comunicadas y justificadas con carácter previo, sean expresamente aceptadas por la Diputación Foral de Bizkaia - Departamento de Acción Social, de acuerdo a la normativa aplicable.

<u>HAMALAUGARRENA</u>. - HITZARMENAREN ALDAKETA.

Alderdi sinatzaileek edozein unetan aldatu ahal izango dute hitzarmen honetan ezarritakoa, alderdien artean adostuta.

<u>DECIMOCUARTA</u>. - MODIFICACIÓN DEL CONVENIO.

Las partes firmantes podrán modificar los términos del presente convenio en cualquier momento, de mutuo acuerdo.

<u>HAMABOSGARRENA</u>.- HITZARMENA AZKENTZEKO ARRAZOIAK.

1. Hitzarmen honetan ezarritako azkentze arrazoiez gainera hitzarmena aldez aurretik azkenduko da ondoko kasuetan ere:

a) Hitzarmenaren indarraldia haren luzapena erabaki barik igarotzea.

b) Sinatzaile guztiek aho batez erabakitzea.

c) Sinatzaileetakoren batek bere gain hartzen dituen eginbeharrak eta konpromisoak ez betetzea.

<u>DECIMOQUINTA</u>.- CAUSAS DE EXTINCIÓN.

1. Además de las causas previstas en las cláusulas del presente convenio, serán causas de extinción las siguientes:

a) El transcurso del plazo de vigencia del convenio sin haberse acordado la prórroga del mismo.

b) El acuerdo unánime de todas las partes firmantes.

c) El incumplimiento de las obligaciones y compromisos asumidos por alguna de las partes firmantes.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: KI8D-MXQY-NO1Q-Z2K7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Bizkaia foru aldundia diputación foral
herri administrazioko eta erakunde harremanetarako saila
departamento de administración pública y relaciones institucionales
idazkaritza orokorra / secretaría general

Kasu honetan, alderdietako edozeinek agindeia jakinarazi ahal izango dio sinatutakoa betetzen ez duen alderdiari, epe jakin batean betegabetzat jotzen diren eginbeharrak eta konpromisoak bete ditzan.

En este caso, cualquiera de las partes podrá notificar a la parte incumplidora un requerimiento para que cumpla en un determinado plazo con las obligaciones o compromisos que se consideran incumplidos.

Agindei hau hitzarmena burutzeko jarraipen, zaintza eta kontrolerako mekanismoaren arduradunari eta hitzarmena sinatu duten gainerako alderdiei.

Este requerimiento será comunicado al responsable del mecanismo de seguimiento, vigilancia y control de la ejecución del convenio y a las demás partes firmantes.

Baldin eta agindeian adierazten den epea igaro eta ez-betetzeak irauten badu, agindeia igortzen duen alderdiak hitzarmena suntsiarazteko kariak gertatzen direla jakinaraziko die alderdi sinatzaileei, eta hitzarmena azkendu egin dela ulertuko da.

Si trascurrido el plazo indicado en el requerimiento persistiera el incumplimiento, la parte que lo dirigió notificará a las partes firmantes la concurrencia de la causa de resolución y se entenderá resuelto el convenio.

Hitzarmena arrazoi hori dela eta suntsiarazteak sortutako kalteen ordaina eman beharra ekar dezake. Edozelan ere, alderdi biek adostasunez adostuko dituzte suntsiarazpen honek erabiltzaileei ahalik eta kalterik txikiena sor diezaien egin beharreko jarduketak.

La resolución del convenio por esta causa podrá conllevar la indemnización de los perjuicios causados. En todo caso, ambas partes, por mutuo acuerdo acordarán las actuaciones a realizar para garantizar que esta resolución implique el menor perjuicio posible a las personas usuarias.

d) Hitzarmenaren deuseztasuna adierazten duen epai-erabakiaren zioz.

e) Hitzarmenean edo beste lege batzuetan aurreikusita dagoen eta arestion aipatutakoen bestelakoa den beste edozein kariren zioz.

d) Por decisión judicial declaratoria de la nulidad del convenio.

e) Por cualquier otra causa distinta de las anteriores prevista en el convenio o en otras leyes.

Sektore publikoaren araubide juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 52 artikuluak ezartzen duen bezala, hitzarmena betetzearen eta suntsiaraztearen ondorioz, likidazioa egingo da, helburua delarik alderdi bakoitzaren obligazioak eta konpromisoak zehaztea.

El cumplimiento y la resolución del convenio darán lugar a la liquidación con el objeto de determinar las obligaciones y los compromisos de cada una de las partes, de acuerdo con lo que establece el artículo 52 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de régimen jurídico del sector público.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: KI8D-MXQY-NO1Q-Z2K7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus
Bizkaia foru aldundia diputación foral
herri administrazioko eta erakunde harremanetarako saila
departamento de administración pública y relaciones institucionales
idazkaritza orokorra / secretaría general

Gizarte Zerbitzuei buruzko Eusko Legebiltzarraren abenduaren 5eko 12/2008 Legeko 59.1 artikuluan ezarri denaren arabera, ekimen pribatuko erakundeek, Gizarte Zerbitzuen Erregistroan inskribatuta egoteaz gainera, baimen administratiboa behar dute gizarte zerbitzuak egiteko eta hornitzeko, eta gainera euren izaeraren eta motaren araberako betekizun materialak, funtzionalak eta pertsonalekoak bete behar dituzte.

A tenor de lo dispuesto en el Art. 59.1 de la Ley del Parlamento Vasco 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales, Las entidades de iniciativa privada requerirán, además de su inscripción en el Registro de Servicios Sociales, la correspondiente autorización administrativa para poder intervenir en la provisión y prestación de servicios sociales, previo cumplimiento de los requisitos materiales, funcionales y de personal que les correspondan en función de su naturaleza y tipología.

2. Halaber, 2. idatz-zatian ezarri da erakunde pribatuek, behar bezala inskribatuta eta baimenduta egoteaz gainera, homologazioa behar dutela Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako gizarte zerbitzuetan aritzeko.

2. Asimismo en su apartado 2 establece que las entidades privadas, debidamente inscritas y autorizadas, requerirán la previa homologación para intervenir en la prestación de servicios sociales integrados en el Sistema Vasco de Servicios Sociales.

Azkenik, 59.3 artikuluan ezarri da homologatzea aldez aurreko ezinbesteko betekizuna dela herri administrazioek erakunde pribatuak kontratatu ahal izateko gizarte zerbitzuak egiteko, bai eta horretarako itunak egiteko ere. Nolanahi ere, homologazioa lortzeak ez dakar berekin ituna ez kontratua eskatzeko eskubidea, ezta lankidetza hitzarmena ere.

Por último, el artículo 59.3 dispone que la previa homologación constituirá un requisito preceptivo para que una entidad privada pueda concertar contratar, o, en su caso, convenir la provisión de servicios sociales con una administración pública. En todo caso, la obtención de la homologación no otorga el derecho a exigir ni la concertación ni la contratación, ni, en su caso, el convenio de colaboración.

Egun oraindik homologazio arautegirik ez dagoenez, hitzarmen hau zuzenbideari lotzen zaiola ulertuko da eta, beraz, beronen xede diren zentroa eta zerbitzua organo eskudunak homologaziorako gutxieneko eta baterako baldintzez noizbait ematen dituen arauetara ez moldatzea hitzarmena suntsiarazteko kausa izango da.

No existiendo a fecha actual la citada normativa de homologación, se entiende ajustado a derecho el presente convenio, siendo causa de resolución del mismo, la no adaptación del Centro y servicio objeto del presente convenio a la futura normativa que emane del Órgano Competente, relativa a las condiciones mínimas básicas y comunes aplicables a la homologación.

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 67. artikuluko 3. zenbakiak ezarritakoari men eginez, hitzarmenaren indarraldia

De conformidad con lo dispuesto en el apartado 3 del artículo 67 de la Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales, una vez finalizada

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: KI8D-MXQY-NO1Q-Z2K7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Bizkaia foru aldundia diputación foral
herri administrazioko eta erakunde harremanetarako saila
departamento de administración pública y relaciones institucionales
idazkaritza orokorra / secretaría general

amaitu ondoren, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak ziurtatu beharko du hitzartutako zerbitzuen eta prestazioen erabiltzaileen eskubideek kalterik jasango ez dutela hitzarmenaren amaieraren ondorioz.

la vigencia del convenio, por la causa que fuere, el Departamento de Acción Social de la Diputación Foral de Bizkaia deberá garantizar que los derechos de las personas usuarias de las prestaciones y servicios convenidos no se vean perjudicados por la finalización del convenio.

HAMASEIGARRENA- JURISDIKZIO ESKUDUNA.

1. Hitzarmena garatu eta betearaztean alderdien artean sortzen diren auziak administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren mende jarriko dira, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean edo, hala badagokio, araudi zibilean xedatutakoaren arabera.

2. Nolanahi ere, alderdiek konpromisoa hartzen dute hamazazpigarren klausulan aurreikusitako hitzarmen hau Ebaluatzeko eta Jarraitzeko Batzorde Mistoaren aurrean izan dezaketen edozein ezberdintasun fede onez planteatzeko, ekintza judizialak gauzatu aurretik.

Nolanahi ere, legez bidezkotzat jotzen diren errekurtso guztiak balia daitezke

DECIMOSEXTA.- JURISDICCIÓN COMPETENTE

1. Las cuestiones litigiosas que surjan entre las partes durante el desarrollo y ejecución del convenio, se someterán a la jurisdicción contencioso-administrativa, conforme a lo dispuesto en la Ley 29/1998, de 13 de julio, Reguladora de la Jurisdicción Contenciosos-Administrativa, o por la normativa civil, en su caso.

2. En todo caso, las partes se comprometen de buena fe a plantear cualquier diferencia que pudieran tener ante la Comisión Mixta de Evaluación y Seguimiento del presente Convenio prevista en la cláusula decimoséptima, antes de ejercer acciones judiciales.

Sin perjuicio de lo que antecede, podrá ejercitarse cualquier otro recurso que se estime ante la Ley.

HAMAZAZPIGARRENA. - HITZARMENA EBALUATZEKO ETA JARRAITZEKO BATZORDE MISTOA.

Batzorde misto bat sortu da, osaera paritariokoa, lankidetza-hitzarmen honen garapenean koordinazio egokiaz eta haren exekuzioa kontrolatzeaz arduratuko dena.

DECIMOSÉPTIMA.- COMISIÓN MIXTA DE EVALUACIÓN Y SEGUIMIENTO DE LOS CONVENIOS.

Se crea una Comisión Mixta, de composición paritaria, que será la responsable de procurar la adecuada coordinación en el desarrollo de este convenio de colaboración y de controlar su ejecución.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: KI8D-MXQY-NO1Q-Z2K7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Bizkaia foru aldundia diputación foral
herri administrazioko eta erakunde harremanetarako saila
departamento de administración pública y relaciones institucionales
idazkaritza orokorra / secretaría general

Erabakiak alderdien arteko adostasunez hartuko dira.

Las decisiones de la Comisión se tomarán por consenso entre las partes.

Batzordea lau pertsonak osatuko dute, alderdiek bina pertsona izendatuta.

Esta comisión estará constituida por cuatro personas, dos nombradas por cada una de las partes.

Batzordea urtean behin, gutxienez, batzartu daiteke. Hauek izango dira batzordearen eginkizun nagusiak:

La Comisión podrá reunirse, al menos, una vez al año y sus funciones generales serán:

a) Alderdien konpromisoak direla-eta sortzen diren interpretazio-zalantzak argitzea.

a) Resolver las diferencias de interpretación que pudieran surgir respecto de los compromisos de cada una de las partes.

b) Hitzarmena interpretatzea eta hura betetzen dela zaintzea, eta ez-betetze posibleak mailakatzeko irizpideak ezartzea.

b) Interpretar y vigilar el cumplimiento del convenio, así como establecer los criterios para determinar la graduación de los posibles incumplimientos.

c) Bizkaiko Foru Aldundiak proposatuta, hitzarmen honen hemeretzigarren klausulan adierazitako justifikazio-agiri ekonomikoak gainbegiratzea eta berrestea, hala dagokionean.

c) Supervisar y ratificar, en su caso, y a propuesta de la Diputación foral de Bizkaia la documentación económica justificativa señalada en la cláusula decimoprimera del presente convenio.

d) Hitzarmenaren funtzionamenduaren jarraipen eta ebaluazioa egitea, eta egokitzat jotzen diren aldaketa-proposamenak egitea.

d) Realizar el seguimiento y evaluación de su funcionamiento y formular las propuestas de modificación que consideren oportunas.

e) Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren, urriaren 1ko 40/2015 Legean ezarritakoa aplikatzean egokitu dakiokeen beste edozein eginkizun.

e) Cualquier otra que le pudiera corresponder en aplicación de lo previsto en la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

Batzordea alderdietako edozeinek proposatuta bilduko da, eta bere funtzionamendua, hitzarmen honetan ezarrita ez dagoen guztian, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen araberakoa izango da.

La Comisión se reunirá a propuesta de cualquiera de las partes y su funcionamiento, en lo no previsto en el presente Convenio, se regirá por la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: KI8D-MXQY-NO1Q-Z2K7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Bizkaia foru aldundia diputación foral
herri administrazioko eta erakunde harremanetarako saila
departamento de administración pública y relaciones institucionales
idazkaritza orokorra / secretaría general

HAMAZORTZIGARRENA.- DATUEN BABESA.

Datu pertsonalen babesaren arloan aplikatzekoa den araubidea honako hau da: Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamendua (EB) (DBEO aurrerantzean), eta Datu pertsonalak babestu eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa (DBEDBLO aurrerantzean).

Egin behar den datu pertsonalen tratamenduaren deskripzio orokorra:

Hitzarmen honen bidez, alderdiek beren gain hartzen dituzte behean adierazten diren rolak eta erantzukizunak, eta hitzarmenari aplikatzekoak zaizkion DBEOn eta DBEDBLOn ezarritako estipulazioak betetzeko konpromisoa hartzen dute.

Hitzarmen honek ez du sorrarazten alderdien arteko erantzukidetasun-harremanik, DBEOren 26. artikuluan jasotakorik; izan ere, alderdiek ez dituzte elkarrekin ezartzen hitzarmena dela-eta aurreikusten diren tratamenduen helburuak, ez tratamenduok egiteko bideak.

Hitzarmen honek ez du sorrarazten alderdien artean DBEOren 28. artikuluaren araberako inolako harremanik, alegia, tratamenduaren arduradun eta eragile izatearen harremanik; izan ere, alderdietako batek ere ez du datu pertsonalik tratatzen beste alderdiaren kontura.

Alderdiek honako konpromiso hauek hartzen dituzte datu pertsonalen babesaren arloan indarrean den araudia betetzeko, erakundeak direlarik tratamenduaren arduradun:

I. Datu pertsonalen tratamendurako jarduerak baimentzea.

DECIMOCTAVA. - PROTECCIÓN DE DATOS.

El régimen de protección de datos personales aplicable es el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016, relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos (en adelante, “RGPD”), y la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de datos personales y garantía de los derechos digitales (en adelante “LOPDGDD”).

Descripción general del tratamiento de datos personales a efectuar:

Las partes adquieren los siguientes roles y responsabilidades en virtud del presente Convenio y se comprometen para tal fin a cumplir con las estipulaciones establecidas en el RGPD y en la LOPDGDD que le sean de aplicación.

El presente Convenio no articula entre las partes ninguna relación de corresponsabilidad de las contempladas en el artículo 26 del RGPD puesto que las partes no determinan conjuntamente los objetivos y los medios de los tratamientos que por el convenio se prevén.

El presente Convenio, no articula entre las partes una relación de responsables y encargados del tratamiento conforme al artículo 28 del RGPD puesto que ninguna de las partes trata datos personales por cuenta de la otra.

Compromisos de las partes para el cumplimiento de la normativa vigente en materia de protección de datos personales. dada su calidad de ser Instituciones responsables del tratamiento.

I. Autorizar las actividades de tratamiento de datos personales.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: KI8D-MXQY-NO1Q-Z2K7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Bizkaia foru aldundia diputación foral
herri administrazioko eta erakunde harremanetarako saila
departamento de administración pública y relaciones institucionales
idazkaritza orokorra / secretaría general

II. Datuen babesari buruzko araudia betetzen dela zaindu eta kontrolatzea, bai tratamendua hasi aurretik, bai tratamenduan zehar.

III. Tratamendu-eragiketen ikuskapenak, auditoriak eta eragiketa horiek datu pertsonalen babesean duten inpaktuaren ebaluazioak egitea, araudiari jarraikiz.

IV. Behar diren kontsultak egitea aurretiaz.

V. Datu pertsonalak DBEOren 32. artikuluan xedatutako segurtasun-irizpideekin eta edukiarekin bat tratatzea, eta eskura diren datu pertsonalen konfidentzialtasuna, sekretua eta osotasuna ziurtatzeko beharrezkoak edo gomendagarriak diren segurtasun arloko neurri teknikoak eta antolaketa-neurriak zaintzea eta hartzea. Aurrekoa, hain zuzen, bat dator Administrazio Elektronikoaren esparrurako Segurtasun-Eskema Nazionala arautzen duen 311/2022 Errege Dekretuaren II. eranskinean ezarritako informazio-sistemen kategorizazioarekin eta segurtasun-neurrien aplikazioarekin.

VI. Hitzarmena gauzatzeko tratatzen dituzten datu pertsonalen erabateko konfidentzialtasuna gordetzea, bai eta haien tratamenduaren ondorioz sortzen direnena ere, datuok lortu diren euskarria edozein dela ere.

VII. Tratamenduaren edozein fasetan esku hartzen duten pertsona guztiek izango dute aurreko betebehar hori, eta, era berean, erakundeon ardura izango da organikoki edo/eta funtzionalki euren menpe dituzten pertsonak ohartaraztea sekretua gordetzeko eginbeharra dutela eta hura gordetzen jarraitu behar dutela jarduera bukatutakoan ere edo jarduerarekiko lotura galdu badute ere.

VIII. Bermatzea tratamendua egiteko baimena duten pertsonek badutela prestakuntza nahikoa datu pertsonalen babesaren arloan.

IX. Datu pertsonalak ez komunikatzea

II. Velar de forma previa, controlar durante el tratamiento y supervisar el cumplimiento de la normativa en materia de protección de datos.

III. Realizar las inspecciones, auditorías y evaluaciones de impacto en protección de datos personales de las operaciones de tratamiento que correspondan de acuerdo a la normativa.

IV. Realizar las consultas previas que, en su caso, correspondan.

V. Tratar los datos personales de conformidad con los criterios de seguridad y el contenido previsto en el artículo 32 del RGPD, así como observar y adoptar las medidas técnicas y organizativas de seguridad necesarias o convenientes para asegurar la confidencialidad, secreto e integridad de los datos personales a los que tenga acceso. En particular, se corresponderían con la categorización de sistemas de información y aplicación de medidas de seguridad de acuerdo al Anexo 2 del Real Decreto 311/2022, del Esquema Nacional de Seguridad en el ámbito de la Administración Electrónica.

VI. Mantener la más absoluta confidencialidad sobre los datos personales que pudiere tratar para la ejecución del convenio, así como sobre los que resulten de su tratamiento, cualquiera que sea el soporte en el que se hubieren obtenido.

VII. Esta obligación se extiende a todas las personas que intervengan en cualquiera de las fases del tratamiento, así como a las personas que orgánicamente y/o funcionalmente dependan de ellas, para advertirles de su deber de secreto y de la obligación de mantenerlo incluso cuando finalice la actividad o hayan perdido su vinculación a la misma.

VIII. Garantizar la formación necesaria en materia de protección de datos personales de las personas autorizadas a su tratamiento.

IX. No comunicar (ceder) ni difundir los datos



Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: KI8D-MXQY-NO1Q-Z2K7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Bizkaia foru aldundia diputación foral
herri administrazioko eta erakunde harremanetarako saila
departamento de administración pública y relaciones institucionales
idazkaritza orokorra / secretaría general

(lagatzea) edo zabaltzea hirugarren batzuei, datuak kontserbatzeko denean ere ez, legez ezarritako kasuetan izan ezik.

X. DBEOren 33. artikuluan xedatutakoaren arabera, dagokion tratamenduaren arduradunek jakinaraziko dute —bere erantzukizun-esparruan eta beharrezkoa baldin bada — ahalik eta lasterren eta beranduenez 72 orduko epean, bere ardurapean dituen datu pertsonalen segurtasunean sumatzen duten edozein urraketa, eta baita informazioaren tratamendu- eta kudeaketa-sisteman izan duen edo izan lezakeen —eta datu pertsonalen segurtasuna, osotasuna edo eskuragarritasuna arriskuan jartzen duen— edozein gorabehera edo huts-egite dokumentatzeko eta komunikatzeko garrantzizkoa den edozein informazio ere. Azkenik, halaber komunikatu beharko dio dena delako hitzarmena gauzatu bitartean lortutako datuak eta informazioak hirugarren batzuei ezagutzera eman beharraren ondorioz konfidentzialtasunean izandako edozein urraketa. Lehenbailehen emango du horri buruzko informazio xehea, are zehatz adieraziz ere zer interesdunek jasan duten konfidentzialtasun-galera bat.

XI. Indarrean den araudiak eskatzen duen moduan erantzutea pertsona fisiko batek egikaritzen duenean datuen babesaren arloko eskubideetakoren bat (datuetan sartzekoa, datuak zuzendu, aurkaratu, ezabatu eta haien tratamendua mugatzekoa, automatizatutako erabaki indibidualizatuen xede ez izatekoa, edo aplikatzekoa

XII. Bakoitzak bere betebeharrak betetzea segurtasun-neurriei dagokienez, segurtasun-arrakalak (gauzatu direnak zein egiten saiatu direnak) komunikatu eta/edo jakinaraztea dagokion agintaritzari, eta, hala denean, behar diren inpaktu-ebaluazioak egitea.

XIII. Idatziz edukitzea, baita formatu

personales a terceras personas, ni siquiera para su conservación salvo en supuestos legalmente habilitados.

X. De conformidad con el artículo 33 RGPD, los responsables de tratamiento comunicarán en su respectivo ámbito de responsabilidad y en caso de ser necesario a la autoridad de control competente de forma inmediata y a más tardar en el plazo de 72 horas, cualquier violación de la seguridad de los datos personales bajo su responsabilidad de la que tenga conocimiento, juntamente con toda la información relevante para la documentación y comunicación de la incidencia o cualquier fallo en su sistema de tratamiento y gestión de la información que hayan tenido o puedan tener que ponga en peligro la seguridad de los datos personales, su integridad o su disponibilidad, así como cualquier posible vulneración de la confidencialidad como consecuencia de la puesta en conocimiento de terceras personas de los datos e informaciones obtenidos durante la ejecución del presente convenio. Comunicará con diligencia información detallada al respecto, incluso concretando qué personas interesadas sufrieron una pérdida de confidencialidad.

XI. Atender conforme exige la normativa vigente cada supuesto en el que una persona física ejerza uno de los derechos en materia de protección de datos (acceso, rectificación, supresión y oposición, limitación del tratamiento y a no ser objeto de decisiones individualizadas automatizadas, u otros reconocidos por la normativa aplicable).

XII. Cumplir con sus respectivas obligaciones en materia de medidas de seguridad, comunicación y/o notificación de brechas (logradas e intentadas) de seguridad a las autoridades competentes o las personas interesadas, y realizar, en su caso, las evaluaciones de impacto que sean pertinentes.

XIII. Llevar, por escrito, incluso en formato



Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: KI8D-MXQY-NO1Q-Z2K7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral
herri administrazioko eta erakunde harremanetarako saila
departamento de administración pública y relaciones institucionales
idazkaritza orokorra / secretaría general

elektronikoan ere, eta DBEOren 30.2 artikuluarekin bat, egindako tratamendu-jardueren kategoria guztien erregistro bat, zeinetan jasoko baitira, gutxienez, artikulu horrek aztergai dituen zirkunstantziak.

electrónico, y de acuerdo con el artículo 30.2 del RGPD un registro de todas las categorías de actividades de tratamiento efectuadas que contenga, al menos, las circunstancias a que se refiere dicho artículo.

XIV. Datuen babesari buruzko araudia eta erantzukizun proaktiboaren betebeharra betetzen direlako ebidentziak izatea.

XIV. Disponer de evidencias que demuestren su cumplimiento de la normativa de protección de datos personales y del deber de responsabilidad proactiva.

XV. Informazio-eskubidea: Datuak biltzen direnean, egingo diren datu-tratamenduei buruzko informazioa eman beharko dute erakundeek.

XV. Derecho de información: Las entidades en el momento de la recogida de los datos, deben facilitar la información relativa a los tratamientos de datos que se van a realizar.

XVI. Araubide juridiko honetan ezarritako eskubideak eta betebeharrak dira hitzarmen honen inguruan egituratzen den datu pertsonalen tratamendua arautzen duen oinarri juridikoa. Eranskin honetan adierazitako betebeharrak eta eskubideak direla-eta ez da dirurik ordainduko, hitzarmenean aurreikusitakoaz gainerakorik, eta hitzarmenaren xede den prestazioaren iraupen bera izango dute. Gainera, hitzarmena luzatuz gero, neurri berean luzatuko dira haiek ere. Dena den, hitzarmena amaitutakoan, sekretu-betebeharrak indarrean iraungo du, denbora-mugarik gabe, prestazioaren exekuzioan zerikusia izan duten pertsona guztientzat.

XVI. Los derechos y las obligaciones en este régimen jurídico establecidas constituyen la base jurídica que regula el tratamiento de datos personales que se articula en torno al presente Convenio. Las obligaciones y derechos que aquí se contienen no son retribuibles de forma distinta u adicional a lo previsto en este convenio y tendrán la misma duración que la prestación de objeto de este convenio prorrogándose en su caso por períodos iguales a éste. No obstante, a la finalización del convenio el deber de secreto continuará vigente, sin límite de tiempo, para todas las personas involucradas en la ejecución del convenio.

XVII. Hitzarmena formalizatuta dagoela, eta hura gauzatu bitartean, beharrezkoa bada bertan hizpatutakoa aldatzea edo egokitzea, orduan, erakunde biek adieraziko dute zer aldatu edo egokitu nahi duten. Entitate biak eskatu denarekin ados egonez gero, dokumentu eguneratu bat emango litzateke, tratamenduaren zehaztasun guztiak fideltasunez jasoko lituzkeena.

XVII. Si una vez formalizado el convenio y durante la ejecución del mismo resultara necesario modificar o adaptar lo estipulado en el mismo, las entidades señalarán los cambios que solicitan modificar u adaptar. En caso de que ambas entidades estén de acuerdo con lo solicitado, se emitiría un documento actualizado que recoja fielmente el detalle del tratamiento.

C ERANSKINEAN datuen tratamenduaren ezaugarri bereziak deskribatzen dira.

En el ANEXO C se describen las características particulares del tratamiento de los datos.

Adostasunaren adierazgarri eta fede onez hitzartutakoa betetzeko, bi alderdiek ale hau sinatzen dute.

En prueba de conformidad y para cumplir lo pactado de buena fe, se firma por ambas partes el presente ejemplar.



Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: KI8D-MXQY-NO1Q-Z2K7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Bizkaia foru aldundia diputación foral
herri administrazioko eta erakunde harremanetarako saila
departamento de administración pública y relaciones institucionales
idazkaritza orokorra / secretaría general

# A ERANSKINA / ANEXO A

CONVENIO DE COLABORACIÓN A SUSCRIBIR PARA LA PRESTACIÓN DE UN SERVICIO DE ATENCIÓN DIURNA - CENTRO DE DÍA

CARÁTULA

1.- NOMBRE DE LA ENTIDAD: N.I.F. :

APNABI - ASOCIACION D EPADRES DE AFECTADOS DE AUTISMO Y OTROS TRASTORNOS DEL ESPECTRO AUTISTA DE BIZKAIA G48094932

2.- NOMBRE DEL CENTRO Y LOCALIZACIÓN:

CENTRO DE ATENCIÓN DIURNA GARAMENDI — Grupo Vicente Garamendi, nº3
48006- Bilbao

3.- REPRESENTANTE DE LA ENTIDAD:

Ignacio María Ruiz Azcona

4.- CONSIGNACIÓN PRESUPUESTARIA:

Programa 231107, orgánico 0303, económico 23708, nº de proyecto 2009/0055. Ejercicio 2024-2025

5.- NÚMERO DE PLAZAS CONVENIDAS:

19 plazas

6.- DÍAS / AÑO APERTURA DEL CENTRO:

Año 2024 215 Bisiesto
Año 2025 214

7- PRECIO PLAZA DIARIA:

126,19 € (Precio sin IVA)

8.- PRECIO DEL CONVENIO DEL 1 DE ENERO DE 2024 AL 31 DE DICIEMBRE 2025: 1.028.576,00 € ACTIVIDAD EXENTA DE IVA

Precio máximo del convenio anual 2024: 515.487,00 € Bisiesto
Precio máximo del convenio anual 2025: 513.089,00 €

9.- RATIOS EQUIVALENTES:

Atención directa: 0,33
Atención indirecta: 0,04

10.- PLAZO DE EJECUCIÓN:

Desde el 1 de enero de 2024 hasta el 31 de diciembre de 2025
El procedimiento de prórroga se ajustará a lo dispuesto en la cláusula decimotercera.

11.- COBERTURA DE RIESGO:

Existencia de un seguro de las características previstas en la cláusula decimoprimera del convenio.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: KI8D-MXQY-NO1Q-Z2K7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Bizkaia foru aldundia diputación foral
herri administrazioarako eta erakunde harremanetarako saila
departamento de administración pública y relaciones institucionales
idazkaritza orokorra / secretaría general

B ERANSKINA / ANEXO B

**C.I.F.:** **G48094932** **ANEXO B**
**ENTIDAD:** **APNABI**
**CENTRO:** **CAD GARAMENDI**

| | |
|---|---|
| ***Personas Usuarias:*** | ***19*** |
| ***Dias de apertura:*** | ***215*** |

| | **ANUAL** |
|---|---|
| **GASTOS:** | |
| **Sueldos y salarios** | 191.765,58 |
| **Cargas sociales** | 67.952,23 |
| **Compras de materias primas y mercaderias** | |
| **Trabajos realizados por otras entidades** | 194.395,48 |
| **Compensación gastos colaboradores** | |
| **TOTAL COSTES DIRECTOS** | **454.113,29** |
| **Servicios exteriores (sin considerar alquileres, reparaciones)** | 13.187,76 |
| **TOTAL COSTES INDIRECTOS** | **13.187,76** |
| **Tributos** | |
| **Arrendamientos y cánones** | |
| **Reparaciones y conservación** | 3.969,86 |
| **Amortización de inmovilizado** | 2.359,73 |
| **Gastos financieros** | 1.479,60 |
| **Otros gastos** | |
| **TOTAL OTROS COSTES** | **7.809,19** |
| **TOTAL COSTE DEL CENTRO** | **475.110,24** |
| **Importe de Servicios Generales de la Entidad imputados al Centro** | **40.376,76** |
| **TOTAL COSTE DEL CENTRO + IMPUTACION SERVICIOS GENERALES** | **515.487,00** |
| ***INGRESOS*** | |
| **TOTAL INGRESOS CENTRO ajenos D.F.B.** | **0,00** |
| **PRECIO DEL CONVENIO (Coste Centro + Serv. Generales - Otros Ingresos )** | **515.487,00** |

| | *Anual* | Precio Plaza/ Año | Precio Plaza/Día |
|---|---|---|---|
| **PRECIO DEL CONVENIO ANUAL** | **515.487,00** | **27.130,89** | **126,19 €** |

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: KI8D-MXQY-NO1Q-Z2K7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Bizkaia foru aldundia diputación foral
herri administrazioarako eta erakunde harremanetarako saila
departamento de administración pública y relaciones institucionales
idazkaritza orokorra / secretaría general

## C - ERANSKINA: "DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA"

## ANEXO C: "TRATAMIENTO DE DATOS PERSONALES"

| *DATUEN BABESARI BURUZKO INFORMAZIOA*<br>*2016/679 ERREGELAMENDUA (EB) ETA DATUEN BABESARI ETA ESKUBIDE DIGITALEN BERMEARI BURUZKO 3/2018 DBLO*<br>*INFORMACIÓN SOBRE PROTECCIÓN DE DATOS*<br>*REGLAMENTO (UE) 2016/679 DE PROTECCIÓN DE DATOS y LOPD Y GARANTÍA DE DERECHOS DIGITALES 3/2018* | |
|---|---|
| BFAren datuen tratamenduaren arduraduna eta harremanetarako datuak | Responsable del tratamiento de datos y contacto por parte de la DFB. |
| Autonomia Pertsonala Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia, Ugaskobidea 3 bis, 48014 Bilbo. | Dirección General de Promoción de la Autonomía Personal, Ugaskobidea 3 bis 48014 Bilbao |
| Hitzarmena sinatu duen erakundea, datuen tratamenduaren arduraduna dena. | Entidad firmante del convenio responsable del tratamiento de datos. |
| APNABI – Autismoa eta autismoarekin lotutako beste gaitz batzuk dituzten haurren gurasoen Bizkaiko Elkartea | APNABI- Asociación de padres de afectados de autismo y otros trastornos del espectro autista de Bizkaia |
| Datuen babeserako ordezkaria | Persona delegada de Protección de Datos |
| Aholkularitza Juridiko, Informazioaren Segurtasun eta Datuen Babeserako Atala (Herri administraziorako eta erakunde harremanetarako Saila).<br><br>Kale Nagusia, 2-6° – 48001 Bilbo | Jefatura de la Sección de Asesoramiento Jurídico, Seguridad de la Información y Protección de Datos (Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales).<br><br>Gran Vía, 2-6° – 48001 Bilbao |
| Pertsona interesdunaren eskubideak | Derechos de la persona interesada |

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: KI8D-MXQY-NO1Q-Z2K7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Bizkaia foru aldundia diputación foral
herri administrazioko eta erakunde harremanetarako saila
departamento de administración pública y relaciones institucionales
idazkaritza orokorra / secretaría general

| | |
|---|---|
| Interesdunak bere datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea du, baita horiek tratatzeko mugak jartzeko edo horren aurka agertzeko ere, eta horretarako, <u>Aholkularitza Juridiko, Informazioaren Segurtasun eta Datuen Babeserako Atalari</u> zuzendutako idatzia aurkeztu beharko du hemen:<br>• BFAren egoitza elektronikoa: https://www.ebizkaia.eus (prozedura: datu pertsonalen eskubideak egikaritzea).<br>• Bizkaiko Foru Aldundiaren erregistro nagusia (Laguntza, Herritarren erregistro eta arreta bulegoa:<br>Diputazio kalea, 7 – 48008 Bilbo)<br>• Bizkaiko Foru Aldundiaren Herritarrentzako Arretarako Eskualde Bulegoak.<br>• Bizkaiko Foru Aldundiko sailen erregistro orokorrak<br>• Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusitako lekuetan<br><br>Interesatuak era berean eskubidea du dagokion Kontrol Agintaritzan (Datuak Babesteko Euskal Bulegoan) erreklamazioak egiteko. | La persona interesada podrá acceder a sus datos, solicitar su rectificación, su supresión o la limitación de su tratamiento, y oponerse a este presentando un escrito dirigido a la <u>Sección de Asesoramiento Jurídico, Seguridad de la Información y Protección de Datos</u> en:<br>• La Sede electrónica de la DFB: https://www.ebizkaia.eus (procedimiento: ejercicio derechos datos personales).<br>• Registro Central de la Diputación Foral de Bizkaia (Oficina de Registro y Atención Ciudadana Laguntza:<br>c / Diputación, 7- 48008 Bilbao)<br>• Oficinas Comarcales de Atención Ciudadana de la Diputación Foral de Bizkaia.<br>• Registros Generales Departamentales de la Diputación Foral de Bizkaia<br>• Lugares previstos en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.<br><br>La persona interesada dispone igualmente del derecho a reclamar ante la autoridad de control pertinente (Agencia Vasca de Protección de Datos). |
| Tratamenduaren helburua | Finalidad del tratamiento |
| Erabiltzaileen identifikazio-datuak kudeatzea. | Gestionar los datos identificativos del colectivo de personas usuarias. |
| Datuen tratamenduaren jarduerak | Actividades del tratamiento de datos |
| Datu pertsonalen tratamenduak honako hauek barne hartuko ditu:<br>• Datuak atzematea<br>• Datuak grabatzea<br>• Datuak egituratzea<br>• Interesdunekin harremanetan jartzea<br>• Datuak biltegiratzea<br>• Datuak ateratzea (berreskuratzea)<br>• Datuak kontsultatzea | El tratamiento de los datos personales comprenderá:<br>• Captura de datos<br>• Grabación de datos<br>• Estructuración de datos<br>• Puesta en contacto con personas interesadas<br>• Almacenamiento de datos<br>• Extracción de datos (recuperación)<br>• Consulta de datos<br>• Interconexión (cruce) de datos |

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: KI8D-MXQY-NO1Q-Z2K7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus
Bizkaia foru aldundia diputación foral
herri administrazioko eta erakunde harremanetarako saila
departamento de administración pública y relaciones institucionales
idazkaritza orokorra / secretaría general

| | |
|---|---|
| • Datuak interkonektatzea (gurutzatzea)<br>• Datuak erkatzea (egiaztatzea)<br>• Datuak suntsitzea<br>• Tratamenduaren datuak arduradunaren informazio-sistemetan kontserbatzea<br>• Datuen aldi baterako kopiak egitea<br>• Datuen segurtasun-kopiak egitea, datuen berreskuratzea. | • Cotejo (comprobación) de datos<br>• Destrucción de datos<br>• Conservación de datos en sistemas de información de la persona responsable de tratamiento<br>• Copias temporales de datos<br>• Copias de seguridad de los datos, recuperación de datos |
| Tratamenduaren legitimazioa | Legitimación del tratamiento |
| 1. Hitzarmena.<br>2. Eusko Legebiltzarraren abenduaren 5eko 12/2008 Legea, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa.<br>3. DBEOren 28. art. | 1. Convenio<br>2. Ley del Parlamento Vasco 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales.<br>3. Art 28 RGPD. |
| Datu pertsonalen kategoriak | Categorías de datos personales |
| Identifikazio-datuak:<br>– NAN/Identifikazio Ofizialeko Agiria<br>– Izen-abizenak<br>– Posta-helbidea<br>– Telefonoa<br>– Sinadura<br>– Nazionalitatea<br>– Jaioteguna<br>– Jaiolekua<br>– Adina<br>– Egoera zibila<br>– Helbide elektronikoa<br>– Sexua<br><br>Datuen kategoria bereziak:<br>– Osasun datuak (mendeko pertsonen datuak) | Datos identificativos:<br>– DNI/ Documento de Identificación Oficial<br>– Nombre y Apellidos<br>– Dirección postal<br>– Teléfono<br>– Firma<br>– Nacionalidad<br>– Fecha Nacimiento<br>– Lugar de nacimiento<br>– Edad<br>– Estado Civil<br>– Correo electrónico<br>– Sexo<br><br>Categorías especiales de datos:<br>– Datos de salud (de las personas dependientes) |
| Pertsona interesdunen kategorien deskribapena | Descripción de las categorías de personas interesadas |
| - Mendetasun-egoeran dauden pertsonak, zentroaren erabiltzaileak .<br>- Horien ordezkariak.<br>- Harremanetarako pertsonak. | - Personas en situación de dependencia usuarias del centro<br>- Sus representantes.<br>- Personas de contacto. |

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: KI8D-MXQY-NO1Q-Z2K7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Bizkaia foru aldundia diputación foral
herri administrazioko eta erakunde harremanetarako saila
departamento de administración pública y relaciones institucionales
idazkaritza orokorra / secretaría general

| Datuen jatorria | Origen de los datos |
|---|---|
| Tratatutako datu pertsonalak iturri hauetatik datoz:<br>• Hitzarmena sinatu duen erakundea.<br>• Interesduna edo haren ordezkaria.<br>• Erakundeak, organismoak edo administrazio publikoak, hala nola Gaikuntza, Osakidetza, udalak, justizia-administrazioa. | Los datos personales tratados proceden de las siguientes fuentes:<br>• Entidad firmante del convenio.<br>• La persona interesada o su representante.<br>• Entidades, organismos o administraciones públicas tales como Gaikuntza, Osakidetza, Ayuntamientos, administración de justicia. |
| **Datuen hartzaileak** | **Personas destinatarias de los datos** |
| Ez da datu pertsonalak lagatzeko aukera aurreikusten. | No se contempla la posibilidad de cesión de datos personales. |
| **Datuak kontserbatzeko epea** | **Plazo de conservación de los datos** |
| Hitzarmena irauten duen artean (luzapenak eta legezko betebeharrak betetzeko aldia aintzat hartuta) gordeko dira. | Se conservarán durante el tiempo de vigencia del convenio, incluidas las prórrogas y posterior cumplimiento de obligaciones legales. |
| **Segurtasun neurri teknikoen eta antolakuntza-neurrien deskribapen orokorra** | **Descripción general de las medidas técnicas y organizativas de seguridad** |
| Informazio-sistemen kategorizazioa eta segurtasun-neurrien ezarpena, Segurtasunerako Eskema Nazionala Administrazio Elektronikoaren eremuan arautzen duen maiatzaren 3ko 311/2022 Errege Dekretuaren arabera. | Categorización de sistemas de información y aplicación de medidas de seguridad de acuerdo al Real Decreto 311/2022, de 3 de mayo, por el que se regula el Esquema Nacional de Seguridad en el ámbito de la Administración Electrónica. |

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: KI8D-MXQY-NO1Q-Z2K7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Bizkaia foru aldundia diputación foral
herri administrazioorako eta erakunde harremanetarako saila
departamento de administración pública y relaciones institucionales
idazkaritza orokorra / secretaría general

# D ERANSKINA / ANEXO D

Kontu-auditoreak justifikazio-kontuaren berrikuspen eta egiaztapenari buruz eman beharreko txostenaren irismena eta edukia sinatutako hitzarmenaren arabera

Alcance y contenido del Informe de revisión y verificación de la cuenta justificativa a emitir por la persona auditora de cuentas en virtud del convenio de colaboración.

## 1. Jardun-arauen xedea.

Eranskin honetan jasotzen diren arauen xedea da zehaztea kontu-auditoreek zer arau errespetatu behar dituzten erakundeak eta Bizkaiko Foru Aldundiak sinatutako hitzarmenean aipatzen den justifikazio-kontuarekin batera aurkezten den txostena ematerakoan.

Dokumentu honetan, auditorearen jarduna arautu behar duten jarraibideak ezartzen dira; egin beharreko lanen nondik norakoak zehazten dira, eta berrikuspena amaitu ondoren emango duten txostenak jaso beharreko edukia zehazten da.

## 1. Objeto de las normas de actuación.

El objeto de las normas recogidas en este documento es establecer las reglas que deberá contemplar la persona auditora de cuentas en la emisión del informe que acompañará a la cuenta justificativa a que se hace referencia en el convenio firmado por la Entidad con la Diputación Foral de Bizkaia.

Las normas de actuación recogidas en el presente documento establecen las bases que han de regir la actuación de la persona auditora, concretan el alcance del trabajo a realizar y el contenido del informe a emitir una vez finalizada la revisión.

## 2. Auditorearen jarduna arautu behar duten printzipioak.

1. Dokumentu honetan jasotako arauak aplikatzeko, hauek dira kontu-auditoreak: Kontabilitate eta Kontu Auditoretzako Institutuaren menpeko Kontu Auditoreen Erregistro Ofizialean jarduneko auditore gisa inskribatuta daudenak.

2. Finantzaketa jasotzen duen erakundeak justifikazio-kontua prestatzeko betebeharra du, eta, horretarako, hitzarmenaren E. eranskinean biltzen den gastuen eta sarreren egitura erabili behar dute; bada, kontu hori eta auditorearen txostena Jarraipenerako Batzordeari aurkeztu behar zaizkio, lankidetza-hitzarmenean ezarritakoaren

## 2. Principios que han de regir en la actuación de la persona auditora.

1- A los efectos de la aplicación de las normas recogidas en este documento, se considera persona auditora de cuentas, aquella inscrita como ejerciente en el Registro Oficial de Auditores de Cuentas dependiente del Instituto de Contabilidad y Auditoría de Cuentas.

2- La Entidad receptora de financiación tiene la obligación de preparar la cuenta justificativa, conforme a la estructura de gastos e ingresos que se incorpora como Anexo E al convenio, de presentarla junto con el informe de la persona auditora ante la Comisión de seguimiento, de acuerdo con lo dispuesto en el convenio de colaboración.



Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: KI8D-MXQY-NO1Q-Z2K7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus
Bizkaia foru aldundia diputación foral
herri administraziorako eta erakunde harremanetarako saila
departamento de administración pública y relaciones institucionales
idazkaritza orokorra / secretaría general

arabera.

3. Auditorearen erantzukizuna bere lana dokumentu honen edukiaren arabera egitera mugatzen da, bertan ezarritako prozedurak gauzatuz. Halaber, beste prozedura batzuk ere aplikatu ahal izango ditu, bere esperientziaren eta ezagutzaren arabera berrikuspenaren eta egiaztatzearen xedea betetzeko lagungarri bazaizkio.

3- La responsabilidad de la persona auditora se circunscribe a realizar su trabajo de acuerdo con el contenido del presente documento, llevando a cabo los procedimientos establecidos en éste, pudiendo aplicar adicionalmente aquellos otros que, en base a su experiencia y conocimientos, le permitan cumplir con el fin último de toda revisión y verificación.

Auditoreak txostena egin behar du, bere lanaren emaitza gisa, non zehaztuko duen zer egiaztapen egin duen. Halaber adierazi behar ditu onuradunak gastuak eta sarrerak egozteko aplikatu beharreko araudia ez betetzea eragin lezaketen akats edo salbuespen guztiak, eta xehetasun eta zehaztasun nahikoarekin eman behar du horren inguruko informazio guztia, Jarraipenerako Batzordeak horri buruzko erabakia hartu ahal dezan.

Como resultado de su trabajo la persona auditora emitirá un informe en el que se detallarán las comprobaciones realizadas y se comentarán todos aquellos hechos, errores o excepciones que pudieran suponer un incumplimiento por parte de la persona beneficiaria de la normativa aplicable para la correcta imputación de los correspondientes gastos e ingresos, debiendo proporcionar la información con el suficiente detalle y precisión para que la Comisión de seguimiento pueda concluir al respecto.

4 Auditoreak dokumentu honetan ezarritakoa bete behar du, eta, horrez gainera, osagarri gisa, honako hauek ere bete behar ditu: independentzia, bateraezintasuna, ardura profesionala, sekretu profesionala, ordainsariak eta lan-paperak direla-eta kontu-auditoriari buruzko indarreko araudian ezarritako arau eta printzipioak.

4- La persona auditora deberá respetar las reglas de actuación recogidas en este documento y, subsidiariamente, lo previsto en la normativa vigente de auditoría de cuentas en materia de independencia e incompatibilidades, diligencia profesional, secreto profesional, honorarios y papeles de trabajo.

### 3. Auditoreak aplikatu beharreko prozedurak.

### 3. Procedimientos que la persona auditora deberá aplicar.

Txostena emateko, auditoreak egiaztatu beharko du ea egokia den finantzaketa jaso duen erakunde onuradunak aurkeztutako justifikazio-kontua; horretarako, prozedura hauek egingo ditu:

Para emitir el informe, la persona auditora deberá comprobar la adecuación de la cuenta justificativa presentada por la entidad receptora de financiación, mediante la realización de los siguientes procedimientos:

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: KI8D-MXQY-NO1Q-Z2K7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Bizkaia foru aldundia diputación foral
herri administraziorako eta erakunde harremanetarako saila
departamento de administración pública y relaciones institucionales
idazkaritza orokorra / secretaría general

1. Prozedura orokorrak

1º. Finantzaketa jasotzen duten alderdiei ezarritako betebeharrak ulertzea

